




Ziberelkarbizitza eta Interneteko arriskuak adingabeentzat.

Sarearen erabilera desegokia prebenitzeko jarraibideak.



AURKIBIDEA

Sarrera	3
Teknologia berriekin zerikusia duten kontzeptuak argitzen	4
BULLYINGa	5
ZIBERBULLYINGa	6
SEXTINGa	8
GROOMINGa	9
Zergatik ari dira ugaritzen fenomeno hauek?	10
Biktimaren eta erasotzailearen ezaugarriak eta ondorioak	11
Prebentzio-neurriak	12
Babesteko jarraibideak	13
Kontu legalak	15
Erreferentziak	19
Interneteko baliabideak	20




SARRERA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berrien erabilera hedatu egin da, eta gazte gehienek eguneroko bizitzaren parte dira.

Hau egiaztatzen duten hainbat datu... **Gazteen Euskal Behatokiaren 2010eko azterketa, teknologia berrien erabilera 15-29 urte arteko gazteen artean:**

- * %99k badu sakelako telefonoa; %72k deitu eta/edo deiak jasotzen ditu egunero sakelakoaren bidez; %51k mezua bidali eta jasotzen ditu egunero; %11 egunero edo ia eguneroko konektatzen da Internetera sakelakoaren bidez; %8k argazkiak atera eta partekatzen ditu egunero eta %7 egunero edo ia egunero jolasten da sakelakoaz.
- * %74k baieztatzen du astean 7 orduz gutxienez erabiltzen duela Internet.
- * %60k Internet mezua bidali eta jasotzeko erabiltzen du eta %55 sare sozialetara konektatzen da.
- * Sare sozialak sartzea handiagoa da gazteen mailan; honela, 20 urtez azpikoen %72 egunero konektatzen dira eta 25-29 urte bitartekoen artean, berriz, %39. Sare sozialetarako konexioa ugariagoa da emakumeen artean (%58) gizonen artean baino (%52).
- * Bestalde, gazteen %39k egunero jarduten du txatean edo Messengerrera konektatzen da, kopurua handitu egiten delarik adinean behera egin ahala.

TEKNOLOGIA BERRIEKIN ZERIKUSIA DUTEN KONTZEPTUAK ARGITZEN



Web 2.0: Web dinamikoa da, bertan ezagutzen eta/edo esperientzien batuketa eragiten duen elkarreragina sortzen da. Hau da, pertsona batzuk kolaboratzen, partekatzen eta parte hartzen aritzen dira norabide anitzeko kanal batean; kanal hau irekia da eta erabiltzaileen artean elkarreraginik handiena lortzeko aukera ematen du eta berriro kolaboratzeko, adierazteko eta parte hartzeko aukerak ematen dizkie.

Zenbait adibide:

- * **Sare sozialak:** Espazio birtual hauetan, erabiltzaile bakoitzak profil publiko bat du datu pertsonalekin, egoerekin edo bere buruari buruzko informazioarekin. Gainera, elkarrekintzarako aukera ematen du eta gainerako erabiltzaileak ezagutzeko aukera –MySpace, Facebook, Tuenti, Windows Live Messenger...
- * **Blogak:** Web gune bat da eta, bertan, egileak sarrerak edo postak argitaratzen ditu gai interesgarriei buruz edo bitakora pertsonal gisa, eta hauek guztiak kronologiko gordetzen dira. Irakurleek komentarioak (postak) sartzeko aukera ematen du, benetako iritzi-foroak eratzen dituen tresna interaktibo bihurturik.
Eredu honen bilakaerak *microbloggingi* ematen dio bide. Fenomeno honen adierazgarri nagusia Twitter da, “Zer gertatzen da?” galderari erantzuten diolarik 140 karaktere baino gutxiago erabiliz.
- * **Wikiak:** Web gune honek parte-hartzaileei euren edukiak aldatzeko edo editatzeko aukera ematen die, orria bera plataforma erraz eta eskuragarri bihurtuz, erabiltzaile desberdinek ekarpenak egin ditzaten on-line dokumentu beraren pean.-Wikipedia-
- * **Foroak:** Web gune baten osagarri modura izaten dira, erabiltzaileei tokiko gaien inguruko informazio garrantzitsua eztabaidatzen eta partekatzen utziz, modu aske eta informalean, interes komuna duen komunitate bat eratuz.
- * **Tresnak:** Gainera, tresna ugari daude edukiak sortzera bideratuak. –YouTube, Vimeo, (bideoak) Flickr (argazkiak), Secondlife, World of Warcraft (jokoak).

BULLYINGa

Bullyinga (Olweus, 1998)


Ikasle bat erasotzen da edo biktima bihurtzen da, modu errepikatuan eta denbora batez beste ikasle batek edo batzuek burututako ekintza negatiboen arriskupean dagoenean.

Ezaugarriak:

- * Boterearen desoreka
- * Nahitakotasuna/errepikapena
- * Babesgabetasuna eta pertsonalizazioa

Interneteko jazarpenarekin zerikusia duten fenomenoak

- * Ziberbullyinga
- * Sextinga
- * Groominga



ZIBERBULLYINGa


Teknologia berrien esparruan gertatzen den berdinen arteko jazarpena da. Hemen kokatzen dira haur batzuek beste batzuei egindako txantajeak, burlak, eta irainak.

Ziberbullyingtzat jotzen da pertsona bat beste baten edo talde baten jomuga bihurtzen denean eta tormentatu, mehatxatu, eraso, makurrarazi, lotsarazi egiten dutenean, eraso pertsonalen edo beste era batekoen bidez, posta elektronikoa, berehalako mezularitza, web guneeak, sare sozialak, blogak, txat-aretoak, online foroak edo eztabaidak, sakelakoaren eta komunikazio digitaleko beste gailu batzuen bidez bidalitako testu-mezuak eta/edo irudiak erabiliz.

Kontuan izan beharreko alderdiak:

- * **Eszenario birtualak:** *online* edo sakelako telefonoaren bidez egiten da, biktimaren espazio pertsonala inbadituz. 24/7: eraso/biktimizazioaren potentziala 24 ordukoa da, asteko 7 egunetan.
- * **Anonimotasuna:** gertaerarik gehienak nolabaiteko elkarbizitza-maila partekatzen duten pertsonen artean izaten dira. Asko aurrez harreman zuzenean jazotako gertaeren jarraipen dira.

Aurkako egoera ere izaten da, hau da, arazoa online sortzen da eta *offline* bizitza kutsatzen du. Implikatu guztiek *birtualki* elkar ezagutzeak ez du esan nahi identifikatuta daudenik.
- * **Pribatua Vs. publikoa**
 - Jazarpena **esparru pribatu** batean, protagonistak erasotzailea eta biktima soilik izanik.
 - Jazarpena **esparru publiko** batean, biktimaz eta erasotzaileaz gain, jazarpena ikusten duten parte-hartzaile/pertsona gehiago egonik; ohikoena da ingurunearen ezaugarriak direla-eta.
- * **Errepikapena:** denboran errepikatu edo luzatu egiten da, nahiz eta erasotzailearen ekintza bakar bat biktimizazio-esperientzia luzea izan daitekeen hartzailearentzat.
- * **Nahitakotasuna:** egon daiteke edo ez. Zenbaitetan, erasotzaileak ekintzaren ondorio errealak edo potentzialak ezagutzen ditu eta, beste batzuetan, asmo txarrik gabeko ekintza bat (txantxa bat) erabat deserosoa eta iraingarria gerta daiteke interpelatuarentzat.
- * **Rolak:** erasotzailea(k), biktima(k) eta ikusleak. Azken hauen zereginak garrantzi handiagoa hartzen du, inplika baitaitezke (edo ez), bai erasotzaileak babestuz/indartuz edo biktimari laguntzen saiatuz.




Zenbait adibide:

- * Interneten zintzilikatu datuak, argazki konprometigarriak edo beste pertsona bati kalte egin edo lotsa pasarazi diezaiokeen beste edozein material, eta lagunen artean ezagutarazi.
- * Lagun baten identitatea ordezkatu: profil faltsua sortuta, sare sozialen batean alta emanda, foro/txatetan parte hartuta, bere e-maila toki jakinetan sartuta spam irits dakion berari...
- * Postaren gakoa lapurtu edo erabili bere mezuak irakurtzeko eta/edo pasahitza aldatu.
- * Lagun bat probokatu erreakzio bortitza izan dezan sarean edo kalean, grabatu eta sarera bidali/igo.
- * Zurrumurru faltsuak edo iraingarriak hedatu lagunei buruz.
- * Pertsona adingabe baten sexu-edukiko irudiak edo bideoak bidali, berbidali, bertwitteatu.
- * Mehatxua, iraina... den beste edozein komunikazio-mota (twitter, tuenti, sms..), hau ere modu anonimoan.

Ondorengo azterketa honetatik ateratako datu batzuk: “Una aproximación psicosocial a la violencia en adolescentes” Calvete, E. 2012 Deustuko U.

- * 12 eta 17 urte arteko euskal ikasleen %30 “zibereraso” motaren baten biktima izan da, eta %44k jazarpena egin dio lagun bati noizbait sarearen bitartez. Eraso hauetako gehienak DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen artean izan dira.
- * Modurik ohikoena irainak eta mehatxuak dituzten mezuak bidaltzea da, edota eszena iraingarriak grabatu eta Interneten zintzilikatzea, nahiz eta indartsu sartu den beste moda hau, pertsona baten identitatea usurpatzea kalte egiteko, hain zuzen ere.
- * Neska gehiago dira biktima (%38) mutilak baino (%26).
- * Mutil erasotzaile gehiago (%47) neskak baino (%43).
- * %10 baino gehiagok bideoak grabatu ditu, bere konplizeek beste pertsona bat zerbeit lotsagarria eta iraingarria egitera behartzen zuten bitartean.



SEXTINGa

Sextinga sexu izaerako edukiak (bereziki argazki edo bideoak) hedatzea edo argitaratzea da, igorleak berak sortuak, horretarako sakelakoa edo beste gailu teknologiko bat erabiliz.

Nerabeek sextinga egiteko arrazoiak:

- * Normalean eskatu diotelako, dibertsioz, ongi sentitzeko, inpresionatzeko...
- * Bikotekideari, gustuko duten norbaiti, lagunei edo bikotekide ohiei bidaltzen diete..

Sextinga arriskuko jokabidetzat jotzeko arrazoiak:

- * Arriskuaren kontzientzia txikiagoa eta konfiantza handiegia.
- * Dauden bizi-garaiarengatik.
- * Haurtzaroaren sexualizazio goiztiarrengatik.
- * Komunikabideen berehalakotasunagatik.

Arriskuak:

- * Adingabearen pribatutasunaren galera
- * Arrisku psikologikoak: antsietatea, depresioa
- * Ziberbullyingaren helburu izatea
- * Groominga
- * Arrisku fisikoak eta geokopakena



GROOMINGa

Heldu batek egindako jazarpena da. Haur batekin harremana eta kontrol emozionala ezartzeko nahita egindako ekintzak dira, adingabearen sexu gehiegikeriarako bidea prestatzeko helburuz. Sexu-eduki inplizitu edo esplizituko jazarpen-egoerak dira.

Normalean, online kontaktu sexual batean zentratzen da, oro har, webcamen bidez, eta geroago beste pertsona batzuekin partekatzen den materiala sortzen du; kasu batzuetan soilik iristen da sexu-topaketa fisiko batera.

Normalean, Sareko gune hauetan egiten da:

- * Txat-aretoak
- * Online sare sozialak
- * Berehalako mezularitza-zerbitzuak

UNICEFek dioenez, groomerrak EZ dira izaten adin gazteagoaren itxura egiten duten gizon zaharrak, horrela gazteei ziria sartzeko gezurrekin eta identitate faltsuekin, gazteen **SEXU-EDUKIKO IRUDIAK ENTREGATZERA BEHARTUZ**.

Hori baino gehiago sedukzio-prozesua da; adingabeak sexu helburuen aurrean amore ematen amaitzen du, “lagun birtuala”rekiko mesede boluntario gisa. Hau da, nahiz eta zenbaitetan groomerrek gezurra esaten duten euren adinaz edo sexuaz, normalean, **ONARPENEZKO HARREMAN**en kasuan sartzen dira.



ZERGATIK ARI DIRA UGARITZEN FENOMENO HAUEK?

- * 1) Teknologia berrietarako sarbidea ugaltu egin delako (Internet, sakelakoa...).
- * 2) Ziberespazioaren garrantzia pixkanaka handitu egin delako etxearen, eskolaren eta komunitatearen gizarteratze-espazio osagarri gisa.
- * 3) Eragindako kaltearen pertzepzioa txikiagoa delako bullyingean baino, izan ere, biktima eta erasotzailea ez baitaude jazarpen-egoera zuzenean, “aurrez aurre”.
- * 4) Erasotzailearen zigorgabetasun sententziarengatik, Sareak anonimotasuna ematen baitu eta ez baitie biktimaren, adiskideen, lagunen, gurasoen, eskolako arduradunen... errepresaliei erantzuten.
- * 5) Erasotzaileak ez duelako egiten duen kaltearen kontzientziarik, batzuetan bere jokabidea rol batekin lotzen baitu, eta jokabidea Sarean interpretatutako pertsonaia/rol bati egozten baitio.
- * 6) Interneten beraren ezaugarriengatik, erasotzaileak erraz taldekatzen baititu eta ikus-entzunezko edukiak eroso sortu eta hedatu.

EZAUGARRIAK ETA ONDORIOAK

Biktimarentzat...

- * Antsietatea
- * Depresioa
- * Pentsamendu suizidak
- * Estresa
- * Beldurra
- * Auto-estimua baxua
- * Beren buruarenganako konfiantza eza
- * Haserrea eta frustrazio sentimenduak
- * Babesgabatasun-sentimenduak
- * Urduritasuna
- * Suminkortasuna
- * Somatizazioak
- * Lo-arazoak
- * Eskola-errendimenduari eragiten dioten kontzentratzeko zailtasunak

Erasotzailearentzat...

- * Deskonexio morala
- * Enpatiarik eza
- * Arauak betetzeko zailtasunak
- * Arazoak bere jokabide oldarkorrenengatik
- * Delituzko jokabidea
- * Alkohola eta drogak hartzea
- * Teknologiekiko menpekotasuna
- * Eskola-absentismoa

Badira azterketak azpimarratzen dutenak, bai biktimak eta bai erasotzaileak heldutan iraun dezaketen garapen-arazoak izateko egoeran daudela.

Oro har, ikertzaileen ustez, Ziberbullyingak Bullyingaren antzeko efektuak ditu, bai gertatzen den unean eta bai epe ertain eta luzean; are gehiago, uste dute epe luzera begira efektuak negatiboagoak izan daitezkeela.



PREBENTZIO-NEURRIAK

- * Elkarrizketak izan gazteekin iritzia eman dezaten ziberbullying-arazoei buruz.
- * Azalpen bat eman gazteari ikus dezan gauza hauek ez direla ari gertatzen bere erruz, nahiz eta lagundu daitekeen errepika ez daitezen.
- * Gazteekiko hausnarketa bultzatu besteei sufri ez dezaten laguntzeak duen garrantziaz.
- * Gurasoekiko eta irakasleekiko komunikazioa sustatu, ezagutzen duen bullying edo ziberbullyingeko balizko edozein kasuri buruz.
- * Bere auto-estimua eta auto-konfiantza sendotu.
- * Beraien ohiko ohiturak eta jokabideak aldatzeak eragin dezakeen une zailak pasarazteko aukerari behar duen arreta eta onarpena eskaini; beraz, laguntza eskaini behar zaie aldaketa hauek bultzatzeko.
- * Baloratu bere aldaketak, nahiz eta oso txikiak eta ez aipagarriak iruditu.
- * Gaitu eta motibatu “kontakatilua izatea” adiskide baten sufrimendua “salatze”tik desberdintzen jakiteko.
- * Ikasgelako harreman-giroaren jarraipena egin, beti Interneten eta sakelako telefonoaren erabilera onaren gaia sartzen ahaleginduz.
- * Trebetasun sozialen inguruko programak landu, azpimarratuz Interneten erabilera onak nola lagun diezaiekeen trebetasun horiei.
- * Garapen pertsonal, sozial eta moraleko programak inplementatu, Interneteko tresnen laguntzaz.
- * Internet eta sakelako telefonoen erabilera, potentzialtasun eta arriskuen analisia egin; jarduteko eta prebenitzeko jarraibideak identifikatu.



PREBENTZIORAKO JARRAIBIDEAK

Pasahitza:

- * Gogoratzen erraza eta asmatzen zaila.
- * Ez eman inori.
- * Aldatu pasahitza 6 hilabetean behin edo maizago.
- * Pasahitz desberdinak erabili webgune desberdinetarako, mailerako...
- * Ordenagailua erabili behar ez duzunean, itxi sare sozial, mail, eta abarretako saioak.

Gailuen, sakelakoen, ordenagailuen, tableten... segurtasuna

- * Birusen kontrakoa aktibatuta izan beti.
- * Eguneratu programen eta eragileen bertsioak.
- * Ez ireki SPAM diren edo susmagarri gertatzen zaizun artxiborik.
- * Ez badakizu gailu bat segurua den, ez gorde bertan besteek ikustea edo ezagutzea nahi ez duzun informaziorik.
- * Internet duen sakelakoa baduzu, deskonektatu geolokalizazio-aukera, sakelakotik zerbait argitaratzean, inork jakin ez dezan non zauden.
- * Kontuz web cam-ekin, zu konturatu birus batzuek aktiba ditzakete, eduki itzalita erabili behar ez duzunean eta, beharrezkoa bada, estali ziurtatzeko.



Zuri buruzko informazioa:

- * Ez argitaratu datu pertsonal asko (telefonoa, helbidea...)
- * Kontuz argitaratzen dituzun argazkiekin, bideoekin, muntaiekin..., behin argitaratuta, eurekiko kontrola galdu egingo duzu.
- * Erabili izengoitiak edo nick pertsonalak Interneten zehar ibiltzeko, zure bizitzako segurtasunari eragingo ez dion benetako identitate digitala izan dezan.
- * Profil sozial bat egitean, konfiguratu behar bezala pribatutasuna, argitaratzen duzun edukia zure lagunek soilik ikus dezaten.
- * Ez amore eman xantaiaren edo presioaren aurrean. Lagunen edo ezezagunen eskaerak jasotzen badituzu irudi edo bideo bat bidaltzeko esanez eta zuk nahi ez baduzu, ez egin eta jakinarazi pertsona heldu bati.

Beste pertsona batzuei buruzko informazioa:

- * Ez argitaratu, ez esan gauza iraingarririk, saminik edo umilgarririk. Hau eduki publiko bihur daiteke eta idatzita geratuko da eta ezin duzu ezabatu. Ez egin inori zuri egitea nahi ez duzunik.
- * Ez eman beste pertsona batzuen daturik, ez argitaratu argazkirik, bideorik... bere onarpenik gabe.

Ezezagunak:

- * Ez onartu, ez gehitu ezezagunen kontakturik. Ziurtatu ezagutzen dituzula lagun gisa gehitu aurretik.
- * Ez bidali irudi edo bideorik ezagutzen ez dituzun edo konfiantza eza sortzen dizuten erabiltzaileei.

Ez izan sexting edo ziberbullyingaren partaide: ez sortuz, ez herbidaliz, ez bultzatuz.

KONTU LEGALAK

Erantzukizuna

Zuzenean, eta ordena honetan, hauei egozten zaie: jazarpena osatu duten gertaeren egile adingabeei, edo hauen gurasoei, tutoreei, edo legezko edo egitezko zaintzaileei eta, hala badagokio, inplikaturako adingabeak erlazionatzen diren ikastetxeari edo elkarbizitza-zentroari, esate baterako, musikako, ingeleseko ikastaroak, udako kanpaldiak, etab. Helduak eta erakundeak arduratuko dira jazarpenaren egile adingabeei ezarri beharreko kalte-ordainketa kopuruaz, eta, gainera, bere gain hartu beharko dituzte egokitu dakizkiekeen diziplinazko administrazio-zigorrak.

Adingabeen beraien erantzukizunari dagokionez, kontuan izan beharko da **14 urte dela gutxieneko adina** zigor-sistemak esku hartzeko, adin horretatik aurrera zigor daitezkeelarik LORPMek (Lege Organikoa 5/2000, urtarrilaren 12koa, Espainiako gazteen justizia-sistemaren erantzukizuna arautzen duena). Inplikaturako 14 urtez azpikoei Kode Zibileko babesari buruzko arauetan ezarritakoa aplikatuko zaie, eta, oro har, ber-hezteko zigorrak izango dira.

Kontuan izan behar da **abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 11 artikulua, Euskadiko Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa**, otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legea garatzen duena eta ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta ikastetxeetako elkarbizitza-arauak ezartzen dituena, zera adierazten duela: ikasleek eskubidea dutela beren osotasun fisikoa eta morala, identitatea eta duintasun pertsonala errespetatu dadin, tratatu umilgarri edo iraingarriaren helburu izan ezin direlarik. Eta 36 artikulua ikastetxeko elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeari buruzkoa da, esanez:

Ikastetxean elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzendariak zuzenduko dituela, aurreko artikuluan jasotako neurri bat edo batzuk aplikatuta.

Espainiako Zigor Kodeak ziberbullying kasuetan antzemandako ohiko jokabide bakoitza sailkatzen du –irainak, kalumniak, mehatxuak, bortxa, bere burua hiltzera bultzatzea eta isekak- modu desberdinetan:

I. Bere burua hiltzera bultzatu:

ZK 143.1 Artikulua: *Beste bat bere burua hiltzera bultzatzen duenari lau urtetik zortzi urterako espetxe-zigorra jarriko zaio.*

2. Lesioak:

ZK 147.1 artikulua: *Edozein bitarteko edo prozeduraren bidez beste bati gorputz-osotasuna edo osasun fisiko edo mentala kaltetzen dion lesio bat sortzen diona, zigortu egingo da lesioen delituagatik sei hilabetetik hiru urterako kartzela-zigorraz, beti ere, lesioak, objektiboki, sendatzeko lehen medikuguntzaz gain, tratamendu medikoa edo kirurgikoa eskatzen badu. Lesioaren mediku-zainketa edo jarraipen soila ez da tratamendu medikotzat hartuko.*

2. Alabaina, aurreko atalean deskribatutako gertaera zazpitik hogeita lau astebururako atxiloketaz zigortuko da, edota hirutik hamabi hilabeterako isunaz, larritasun txikiagokoa denean, erabilitako bitartekoari edo izandako emaitzari begiratuta.

ZK 148 Artikulua: *Aurreko artikuluko 1 atalean aurreikusitako lesioak bitik bost urterako espetxe-zigorraz zigortu ahal izango dira, eragindako emaitzaren edo sortutako arriskuaren arabera:*

- * *1. Erasoan, lesionatuaren bizitza edo osasun fisiko nahiz psikikorako arriskutsuak diren armak, tresnak, objektuak, bitartekoak, metodoak edo formak erabili badira.*
- * *2. Tartean basakeria izan bada.*

3. Mehatxuak:

ZK 169 Artikulua: *Zigortua izango da beste pertsona bat mehatxatzen duena esanez delituzko kaltea (hilketa, lesioak, abortua, askatasunaren aurkakoa, torturak eta osotasun moralaren, sexu-askatasunaren, intimitatearen, ohorearen, ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak) eragingo diola berari, bere familiari edo berarekin harreman estua duten beste pertsona batzuei.*

4. Indarkeria:

ZK 172 Artikulua: *Norbaitek legezko baimenik gabe beste bati indarkeriaz eragotziko balio Legeak debekatzen ez duena egitea, edota behartuko balu nahi ez duena egitera, nahiz bidezkoa edo bidegabea izan, zigortua izango da sei hilabetetik hiru urterako espetxe-zigorraz, edota sei hilabetetik hogeita laurako isunaz, indarkeriaren larritasunaren edo erabilitako bitartekoen arabera.*

5. Tortura edo osotasun moralaren aurkako delitua:

ZK 173 Artikulua: *Beste pertsona bati tratu umiliagarria ematen diona, bere osotasun morala larriki kaltetuz, sei hilabetetik bi urterako espetxe-zigorraz zigortuko da.*

6. Intimitatearen, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxa-ezintasunaren aurkako delituak:

- * **a) irainarena: ZK 208 Artikulua:** *Iraina da beste pertsona baten duintasunari min ematen dion ekintza edo adierazpena, bere ospeari kalte eginez edo bere estimazioaren aurka eginez. Delituzkoak soilik izango dira, izaeraz, efektuz eta zirkunstantziaz, kontzeptu publikoan larrizat hartzen direnak. Gertaerak egoztean dautzan irainak ez dira larrizat joko, baldin eta faltsua dela jakinda edo egiarekiko mespretxu ausartegiaz burutu ez badira. 209 Artikulua. Publizitatearekin egindako irain larriak seitik hamalau hilabeterako isunaz zigortuko dira eta, beste kasu batean, hirutik zazpirakoaz.*
- * **b) kalumniarena: ZK 205 Artikulua:** *Kalumnia da delitu bat egozte, faltsua dela jakinda edo egiarekiko mespretxu ausartegiaz egiten denean. ZK 206 Artikulua: Kalumniak sei hilabetetik bi urterako espetxe-zigorraz edo seitik hogeita lau hilabeterako isunaz zigortuko dira, publizitatearen bidez zabalduko balira, eta, beste kasu batean, lautik hamar hilabeterako isunaz.*
- * **c) sekretuen deskubrimendu eta agerpenarena: ZK 197.1 Artikulua:** *Beste baten sekretuak deskubritzeko edo intimitatea urratzeko, beraren baimenik gabe, haren paperen, gutunen, posta elektronikoko mezuen, edo beste edozein dokumentu edo ondasun pertsonalen jabe egiten dena, edota beraren telekomunikazioak eragozten dituen, edo gailu teknikoak erabiltzen dituen soinua edo irudia, edo beste edozein komunikazio-seinale entzuteko, transmititzeko, grabatzeko edo erreproduzitzeko, zigortua izango da urtebetetik lau urterako espetxe-zigorraz eta hamabitik hogeita lau hilabeterako isunaz.*

Atal honetan sartuko litzateke datu pertsonalen tratamendua, bereziki, adingabeen irudiaren tratamendua emaitza penalarekin: ZK 197.5 Artikulua: Era berean, aurreko ataletan deskribatutako gertaerek izaera pertsonaleko datuei eragiten dietenean, esate baterako, ideologia, erlijioa, sinesmenak, osasuna, arraza-jatorria edo sexu-bizitza ezagutaraziz, edota biktima adingabea edo ezgaia bada, bere goiko erdian aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

7. Identitatearen usurpazioa:

ZK 401 Artikulua: *Beste baten egoera zibila usurpatzen duena sei hilabetetik hiru urterako espetxe-zigorraz zigortuko da. Auzitegi Gorenak honela definitzen du jokabide hau: “persona baten egoera zibila usurpatzea bera den plantak egitea da beraren eskubideak erabiltzeko helburuz, beraren seme-alabatasuna, aitatasuna, ezkontza-eskubideak ordeztzea, faltsukeria da, pertsonari aplikatuta eta beste erreal eta benetako batez ordezkatzeko asmoz” (...) “ez da nahikoa, delitua izateko, besteren nortasuna beretzat hartzea, beste baten izena hartuz ekintza jakin baterako”.*

(1986ko maiatzaren 23ko sententzia).

8. Kalte informatikoak:

ZK 264.2 Artikulua: (...) *Zigor bera ezarriko zaio edozein modutan beste norbaiten sareko, euskarriko edo sistema informatikoko datuak, programak edo dokumentu elektronikoak suntsitu, aldatu, ezdeus bihurtu edota edonola kaltetzen dituenari.*

9. Iritzi-delitu:

ZK 510 Artikulua:


- * *1. Bazterketa, gorrotoa edo indarkeria sustatzen dutenak talde edo elkarteen aurka, arrazoi arrazista, antisemita edo ideologia, erlijio edo sinesmen arloko beste edozerengatik, egoera familiar, bertako kideen etnia edo arraza, jatorri, sexu, joera sexual, gaixotasun edo gutxitasunari dagokionez, zigortuak izango dira urtebetetik hiru urterako espetxe-zigorraz eta seitik hamabi hilabeterako isunaz.*
 - * *2. Zigor berarekin zigortuko dira, faltsua dela jakinda edo egiarekiko mespretxu ausartegiaz, informazio iraingarriak zabaltzen dituztenak talde edo elkarteei buruz, euren ideologia, erlijio edo sinesmen, kideen etnia edo arraza, jatorri, sexu, joera sexual, gaixotasun edo gutxitasunari dagokionez.*
-



ERREFERENTZIAK

- * Aftab, P. (2006). ***Cyberbullying. Guía práctica para madres, padres y personal docente.*** EDEX / PantallasAmigas.
- * Calvete, E. (2012). ***Una aproximación psicosocial a la violencia en adolescentes.*** Deustuko Unibertsitatea
- * Defensor del menor de la Comunidad de Madrid (2011). ***CIBERBULLYING. Guía de recursos para Centros Educativos en casos de ciberacoso.*** Madril.
- * Garaigordobil, M (2011). ***Prevalencia y consecuencias del cyberbullying: una revisión.*** E.H.U.
- * Eusko Jaurlaritza (2010). ***Protocolo de actuación escolar ante el cyberbullying.***
- * INTECO. ***Guía legal sobre Cyberbullying y Grooming.***
- * INTECO. ***Guías legales Redes Sociales Menores de edad y seguridad en internet.***
- * INTECO y Pantallas amigas. ***Guía sobre adolescencia y sexting: qué es y cómo prevenirlo.***
- * INTECO y el Ministerio de Industria, Turismo y Comercio. ***Guía de introducción a la Web 2.0: aspectos de privacidad y seguridad en las plataformas colaborativas.***
- * Gazteen Euskal Behatokia (2010). ***Teknologia berrien erabilera 15-29 urte bitarteko gazteen artean.***
- * Ortega, R. y Mora-Merchán, J. (2000). ***Violencia Escolar. Mito o realidad.*** Sevilla: Mergablum.
- * Ortega, R.; Calmaestra, J.; Mora-Merchán, J.A. (2008). ***Estrategias de afrontamiento y sentimientos ante el cyberbullying.*** International journal of developmental and educational psychology. 2, 123 - 132.

INTERNETEKO BALIABIDEAK



- * cert.inteco.es/Proteccion/Menores_protegidos/
- * www.ciberbullying.com/cyberbullying/
- * ciberbullying.wordpress.com/
- * www.chaval.es/chavales/
- * www.childnet.com/
- * www.cyberbullying.ca/
- * www.educa.jcyl.es/es/webs-tematicas/ciberacoso
- * www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net
- * www.pantallasamigas.net
- * www.protegeles.com/
- * www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dif11/es_5613/f11_c.html
(Ziberbullying-kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa).